

*CURROS ENRIQUEZ ETA BILINTX.*—Goratu beharra dugu «Auspoa» Argitaldaria literatura zaharretiko lanak berriz argitaratzen egin duen lanagatik, eta lanotariko bat bereziki Bilintx-en *Bertso ta lan guziak* (1962) izan zen. Ikusi L. Mitxelena EGAN-en egin zion aipamena, 1962-ko 1-3 zenbakiaren 91-garren orrialdean. Argitalpen hau dakart oroimenera Bilintx behar bezala ezagutzen ez dutenen aukerarako, zeren 1911-an egin zen argitalpena eskuratzea nekeza delako. Poetaren dohaina eta etorria oso bakanak izan ziren, eta ez zan harritzekoa Curros Enríquez-ek bere garaian bertsoz egin zion gorazarrea.

1911-an, Euskal-Esnaleak bildu eta argitaldu zituen Bilintx-en *Neurtitzak eta Neurri gabeko itzak* izeneko liburua, Karmelo Etxegarai-ren hitzaurrearekin. Hitzaurre honen XLIII-gn. orrialdean, Etxegarai-k dio, Careta gailego poetaren bertso batekin konparazioa egitean: «Curros Enríquez-ek ipiñi zituen gatzelaniaz, *Bilintx*-en izena ta oroitza goratzen zituzten neurtitz batzuek; baña irakurtzea aski da, jakiteko ayek izkribatu zituenak etzekiela *Bilintx* zeñ zan. Bere izena ezagutuko zuen, bere izaerarik, ez. Ala ez izatekotz ez liguke esango neurtizkari Donostiarra Mendizorrozko maldan zegoen txabola batean bizi zala.»

Baina, Curros Enríquez-ek, poeta bezala, bere poeman Bilintx-en etxea Mendizorrozko maldan jarri bazuen ere, ikusiko dugunez poetak beren gisara hartzen dituen lizentzia horietakoa zela, zeren aski ongi ezagutzen zuen poeta euskalduna. Eta, badira beste zenbait

gauza ere poeta gailego honek Bilintx-i buruz eginak, uste baino hobeto ezagutzen zuela adierazten digutenak. Jakina, Karmelo Etxegarai-koak, bere jakituria handia ba zan ere, bere denboran ez zuen gaurko aukerarik Manuel Curros Enríquez-en lan guztiak ezagutzeko, aldizkari eta egunkarietan hor-hemen sakabanaturik zeudelako.

Curros Enríquez, hain zuzen, Karlisten gerrateko 1875 eta 1876-ko urte haietan, Madrilgo *El Imperial* izeneko argitalpenaren kasetalari izan zen Euskal-Herrian. Eta bere berrietan bada zer ezaguturik orduko gertaereri buruz. Koronika horietako batean arkitzen da, 1876-ko urtarrilaren 21-ean kasetaren zuzendariari bidali zion gutuna, eta anitz xehetasunen artean ematen ditu gure poeta eta poe meri buruzko irizketak, baita ere Bilintx-en bertso oso bat koronika berean jasoa. Baina, gehiago oraindik, agonian egoala bizitatu zuen gure poeta. Hara hitzez-hitz berak diona: «Cuando lo supe, anoche mismo, yo, que conocía al nobilísimo *Vilinch* por varios de sus cantares y por referencias, acompañado de su buen amigo don Cirilo Latierro, fui a su casa, calle del Puerto, número 5, y lo que entonces sentí aún lo recuerdo ahora con dolor.»

Beraz, argi dago Portu-karrikako 5-garrenean bizi zala ba-ekiela, eta ez Mendizorrozko maldan, poemari zion bezala. Poetaren lizentziak zabalak izaki.

Berri hauek Curros Enríquez-en *Obras escogidas*-en jasotzen dira (Editorial Aguilar, S. A. - Madrid, 1956). Aipatu dugun zatitxo hori 791-gn. orrialdetik hartua da. Eta Etxegarai-k aipatzen zuen poema hura ere, Curros Enríquez-ek Bilintx-i eskainia, liburu berean agertzen da, 280/282 orrialdeetan, *La canción de Vilinch* izenez.

J. S. M.